

» DISKOA

Ahots gabekoen garrantzia



Iker Barandiaran

Andoni Fernandez Azkaraik izugarrizko lana egin du 1977tik 1989ra bitartean Bizkaian punkaren bueltan izan ziren talde ezezagunak gogora ekartzen. Diskorik argitara eman ez zuten 60 talde aukeratu eta horien protagonistei elkarrizketa zabal eta entretenigarriak egiteaz gain, itzalean gelditu diren maketak berreskuratu eta digitalizatu ditu; edozeinek deskarga ditzake mierdabizkaia.bandcamp.com webgunean.

Barakaldok pisu handia hartzen du bilduman, punkaren loraldi garrantzitsua izan zuelako: zuzeneko bortitza zuen *Corrupción*; The Clash gogora ekartzen zuen *091*; pop eta punk-etik zuen *Isidoro y su Colección de Puertas Plegables (Yo Soy Julio Cesarren hazia)*; umorea eta punka uztartzen *Pleonakis Plektos*; hardcorearen aitzindari *Mierda Radiactiva*; *Miserables destroyerra*; odol berria ekarri zuen *Komando Batikano*; eta berpiztutako *Audiencia Nacional*, besteak beste. Gurutzetatik *Trapu Zaharrak* klasifikaezina; *Basauritik P.Ko Putreak* eskema apurtzaile; *Escombros aintzindari (Portugaleta)*; *Bahia de Kotxinos (Santurtzi)* gogoangarria; eta herri bereko *Artrosis* eta *V. Asamblea*. Baita *Sestaoko Nazkatutak* ere, 77ko punka.

Bilbo handiak ere zeresana du: *Kike Turmixek* sortutako *N-634*; *Ortopedia Ocular* neska

Mierda de Bizkaia y sus grupos maqueteros 1977-1989

DDT/EDICIONES SIN GLUTEN



talde aitzindari; *Medanos de Singapur* punk-pop-eroa; *rock-and-rollo*, punka eta afterpunka batzen *Primitivos* gogoangarria; *MCDren* aurrekari *Gazte Hilak*; *trikitixa* eta *panderoa*-rekin eskandaloa sortu zuen *Tarratada* neska bikotea; *Karne de Kotolengoren* ska-punka; *Su Santidad-en* punk primitiboa; *Hau Nazka-ren* hardcore-punka; *Sarraski* hardcore laukotea; eta *Elizaren* kontrako *Estropicio*, besteak beste.

Eskualde gehienak daude ordezkatuta: *Durungaldeko Skakeo-ren* 77ko punka; *Miseriaren* ska; *Poliputos* zaratatsua; *Estupidoficiente* lotsagabea, eta *Amonal* punkya. *Erandioko Pispulutos* punkya; *Kiskillas Farrangosas* punk-rockeroa; *Descendencia Dudosa* punk konbatiboa; *Deskonzierto* punk melodikoa; eta *Pus de Rata*.

Baita ere *Ermuako Banko de Esperma* punk-hardcorea eta *Anarkitarrak* punkya. *Urdabaiko Zurrapak* punk eta *rock-and-rollo*; *Gernikako Xe Osti* punk-ska; *Fosa Comun siniestra*; *Mundakako Salida de Emergencia*; *Nueva Religion* talde misto getxoztarra; eta *kostaldetik Etsaiak-en* aurrekari *Askatu*, zein *Ondarroako Kriston Atxurre*. ■

